

MOTZEAN

REALA

Igandeko partidurako 1.000 pezetako 600 sarrera geratzen dira gaur saltzeko

Oviedoren aurkako partidurako Administrazio Kontseiluak bazkideentzako 1.000 pezetan (40 libera) salgai jarritako sarreretatik 600 baino ez dira geratzen. Horiek prezio horretan erosteko azken eguna gaurkoa izango da Anoetako txarteldegian, goizean 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean 17:00etatik 20:00etara. Bazkide bakoitzak txartel batengatik bi sarrera erosi ahal izango ditu gehienez. Larunbategi aurrera sarrerak betiko prezioan egongo dira salgai jende guztiarentzat.

OSASUNA

Vidakovic, Yanguas eta Lekunberrirekin probak egin ditu Lotinak

Miguel Angel Lotina entrenatzaileak alaketak egin beharko ditu hasierako hamaikakoan Racingi aurre egiteko igandean Sadarren. Alex zigortuta dago eta ezingo du jokatu, eta Alfredok ezingo du denboraldi honetan gehiago jokatu herenegun ezbehar batean matrailezurra hautsi zuelako. Atzo Alexen tokian Vidakovic eta Yanguasekin egin zuen proba Lotinak eta Alfredorenean Lekunberrirekin. Hala ere oraindik zalantza asko dituela adierazi zuen lan saioaren amaieran Lotinak.



MIKEL SAIZ
Vidakovic, Taxoaren, entrenatzen.

REALA

Txantxa artean, lehen taldeko lau jokalarik gerru analisiak egin zituzten atzo

Zubietako entrenamenduaren ostean atzo Espainiako Futbol Federazioko sendagileen bisita izan zuten Realeko lau jokalarik. Sergio Corinok, Dimitri Khokhlov, Iñigo Idiakez eta Julio Cesarrek egin behar izan zuten dopinaren aurkako kontrola. Horretarako pixa egin behar izan zuten hodi batzuetan. Lauretan denborarik gehien behar izan zuena Julio Cesar izan zen. Broma artean, garagardo bat eskura izan balu berehala amaituko lukeela aipatu zuen jokalaria brasildarrak.

OSASUNA. Gaur eguerdian aurkeztuko dute erdilaria Taxoaren

Gorritxo, ekaina arte

Gerardo utzita etorriko da, eta igandean bertan egin dezake debuta

Asier Legarda-ereño | IRUÑA

Osasunak jokalaria berri bat izango du taldean denboraldi amaiera arte. Asteartean Alfredok matrailezurra hautsi zuen eta erdilari madrildarrak geratzen diren Ligako hamar jardunaldietan parte hartzerik izango ez duenez, Osasunak bere fitxa Gerardori eman dio, denboraldia amaitu bitartean jokalaria espainiarrak Osasunarekin joka dezan.

Gerardo Valentziak utzita etorriko da Iruñera denboraldi amaiera arte, eta ekainean Osasunak ez du izango jokalaria erosteko aukerarik. Gerardok ongi ezagutzen du Osasuna, orain 26 urte Sevillan jaiotako gizona bada ere, bere anaia Moisesekin (honek gero lehen taldearekin ere jokatu zuen) batera Osasunako jubeniletan ibilitako gizona baita. Taxoareko harrobia utzi zuenetik hainbat taldetan ibilitako gizona da, Real Madrid B, Leganes, Lleida, Badajoz, Vila-real eta Valentzia. Azken horretan, ordea, ez zuen orain jokatzeke aukera handirik.

Osasunako jokalaria batzuk ezagunak ditu

Badajozen Miguel Anjel Lotinaren aginduetara aritu zen 1997-98 denboraldian, eta beraz, Osasunako entrenatzaileak ongi ezagutzen du. Entrenatzaileak gain, gorritxoaren taldeko beste gizon batzuk ere ezagutzen ditu. Badajozen bertan Sabinorekin aritu zen, 1995-96 denboraldian Alfredorekin batera aritu zen Leganesen zela erdian, eta 1996-97 denboraldian Alex Fernandez



Gerardo Valentziarekin jokatutako partidu batetan.

eta L.Lorens taldekide izan zituen LLeidan. Horrek taldera egokitzen lagun diezaike eta benetan beharko du, ziurrenik igande honetan bertan hasieratik aritu beharko baitu. Gerardok eskuin hegalean jokatu ohi izan du bere azken bi taldeetan (Vila-real eta Valentzia), baina egia esateko Valentzia aukera gutxi izan ditu. Iragan denboraldian, abenduan fitxatu zuen Valentziak, eta Txapeldunen Ligako finalean hasieratik aritu arren Cuperrek ez dio inoiz konfiantzarik erakutsi.

Denboraldi osoan ia minuturik jokatu ez badu ere, Angel Martin Gonzalezek, Osasuna-

ko bigarren entrenatzaileak, adierazi zuenez «Racingen aurka hasieratik jokatzeke aukera gehiago ditu hala ez egiteko baino». Alex eta Alfredo jokatu ezinda daudenez, zelaia erdian toki bat hartuko du Gerardo jokalaria gorritxo berriak.

Taldera egokitzeke denbora askorik ez du izango, baina Osasunako entrenatzaileak egoera fisiko onean etorriko dela uste dute, denboraldi osoan normaltasunez entrenatzen aritu baita. Orain arte Alfredorena zen 6 zenbakiarekin hasieratik joka dezake, beraz, Osasunaren azken fitxaketak.

LESIONAK

Athletic. Mari Lacruzek ez zuen parte hartu atzoko entrenamenduan giharretako arazoak dituelako. Hala ere, ez du arazorik izango Celta-ren aurka jokatzeke. Larrazabal eta Urzaiz Manolo Delgadoren aginduetara aritu ziren.

Osasuna. Mateok, Ociok Alfredok eta Sabinok ezingo dute jokatu etzi Racingen aurka.

Alaves. Javi Moreno ez zen atzo hasierako hamaikakoan zelairatu. Tellez eta Tomic, ordea, lehen minututik atera ziren.

Reala. Joseba Llorentek, Igor Jauregik eta Mikel Aranburuk min hartuta jarraitzen dute, eta ez dute Oviedoren aurka jokatuko.

ENTRENAMENDUAK

Reala. Talde txuri-urdinak gaur goizez eta arratsaldean ditu lan saioak. Goizean, 10:30ean arituko dira Anoetan ateak itxita, eta arratsaldean, aldez, 17:00etan Reala Bren aurka partidu txiki bat jokatuko du Zubietako kirol instalazioetan.

Osasuna: Gaur 10:30ean hasita ariko dira Taxoaren gorritxoak. Bihar ere bai.

Athletic. Zuri-gorriak goizeko 10,30ean entrenatuko dira gaur Lezaman.

PARTIDUAK

Reala-Oviedo. Espainiako Ligako 29. jardunaldia, etzi 18:00etan (PPV).

Alaves-Valladolid. Espainiako Ligako 29. jardunaldia, etzi 18:00etan (PPV).

Celta-Athletic. Espainiako Ligako 29. jardunaldia, etzi 18:00etan (PPV).

Osasuna-Racing. Espainiako Ligako 29. saioa, etzi 18:00etan (PPV).

REALA

Gipuzkoako Futbolaren Plan Estrategikoaren batza eratu da

Jon Ordoñez | DONOSTIA

Gipuzkoako futbolak gaur egun dituen arazoak aurkitu eta konpontzeko asmoz Plan Estrategikoaren batza eratu zuten atzo klub, entrenatzaile, epaile, jokalaria, ikastetxe, kazetari eta Foru Aldundiko ordezkariak. Atzo Anoetako Kirol Etxean egindako batzarrean talde dinamizatzaileak lehen zirriborro bat aurkeztu zuen, eta zazpi helburu azaldu. Horietako bat zen Realak Gipuzkoan duen lidergoa sendotzea. Jose Luis Astiazaran Realeko presidentea prest azaldu zen lidergo hori hartzeko, «Gipuzkoako futbolaren etorkizuna hor baitago». Astiazaran futbol gipuzkoarra teknifikatzearen alde agertu zen, maila goreneko harrobia lortzeko. Beste sei helburuak honako hauek ziren: Gipuzkoako futbola etorkizunera begira jartzea, oinarriko klubaren egoera sendotzea, jokalarien kalitatea hobetzea, balibideak oinarriko klubetara zuzentzea, epaile kopurua handitzea eta jokalariei erraztasunak ematea, eta emakumezkoen futbolaren lider bat bilatu eta bultzatzea.

Jaiotze tasaren jaitziera

Patxi Mutiloak, Eibarrek Espainiako Liga Profesionalean duen ordezkariak, arazoak aipatzean bi azpimarratu zituen: jaiotze tasaren jaitziera eta oinarriko klubaren zuzendaritzaren erreleborik ez egotea. Helburuak lortzeko batzorde batzuk osatuko dira, Juan Luis Larrea Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentek adierazi zuen Plan Estrategikoa oso garrantzitsua dela, eta hori aurrera eramateko dirua duenari eskatu behar zaiola.